

GABONETAKO KANPAINAN EUSKARAREN ERABILERAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urtarrilaren 22an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan egin den bezala, Donostiako Sustapenak Gabonetako kanpaina antolatu du. Hala nola gabonetako merkatua jarri zen Urumea pasealekuan, Ramon Labayen plazan, noria bat Alderdi Ederren, Lera arrapala Federico García Lorca pasealekuan eta Gabonetako Trena Cervantes plazan. Gabonetako dekorazioa jarri da hiriko hainbat txokotan eta gabon kantak jarri dituzte aipatutako toki guztietan.

Abenduaren 26an hiritar batek sare sozialen bidez norian gabon kantak erdaraz soilik jartzen ari zirela salatu zuen eta ondorioz, Berdintasuneko, Ekonomiako eta Tokiko Enpleguko zinegotzi delegatuak Urtarrileko batzordeetan azaldu zuen bezala, Sustapenak berak musika zerrenda bat helarazi zien noriako kudeatzaileei, euskarazko kantak ere jar zitzaten.

Pasa den abenduaren 18an onartu genuen Sustapena sozietatearen Administrazio Kontseiluan 2023-2027 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Plan honetan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak zehazten dira, eta hain zuzen ere 1.1.6.5 puntuak (“Jarduerak bide publikoan”) honela dio:

- Hurrei zuzendutako jardueretako (postu, barraka, jolastoki...) musika, oro har, euskarazkoa izango da eta gainerako adin taldeei zuzendutakoak direnean, euskarazkoen kopurua gutxienez erdia izango da.
- Bide publikoa erabiltzeko baimena ematerakoan, bereziki haur eta gazteentzako jardueren kasuan, euskarazkoek lehentasuna izango dute.

2022 urtean egin zen noriaren kontratazioan argitaratutako preskripzio teknikoan agirian gunen publikoaren erabilerarako baldintzak txertatu ziren eta hauetan, bi aldiz, adierazten da “Hurrei zuzendutako jardueretako musika, oro har, euskarazkoa izango da eta gainerako adin taldeei zuzendutakoetan, euskarazkoen kopurua gainerako hizkuntzekiko orekatua izango da”.

Hau da, ez da lehen urtea ezta bigarrena; enpresa adjudikaziodunak hizkuntza eskaera hauek gutxienez 3 urtez bete behar izan baititu.



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arduraz joka dezala eta betearazi ditzala Udalak berak onartutako araudiak gune publikoaren erabileraren inguruan eta euskararen normalizazioari dagokionean.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 24an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia